

IRAKASKUNTZA PRIBATUKO PATRONALEK FINANTZIAZIOAREN INGURUKO AUZI-PROZESUA GALDU DUTE

EAEko Auzitegi Nagusiak, otsailaren 22ko epaian, errefusatu egin du Kristau Eskolak eta Partaidek Eusko Jaurlaritzak aurka jarritako - 2010-ean hezkuntza itunen finantziazioan ezarritako murrizketak zirela eta- auzi-prozesua.

Auzitegi Gorenak Patronalek ipinitako helegitea errefusatu ondoren, alorreko patronal erakunde batzuk - atzerapenak kitatu eta nominak eguneratu- lan hitzarmena betetzeko urratsak eman dituzte, baina Kristau Eskolak 2012ko amaieran eskatzen zien, beste behin, langileei pazientziaz betetzea eta 2013ko martxoa baino lehenago kantitate erreklamazio berririk ez ipintzea ezta sartutakoak aktibatzea ere. Hori eskatzen zuen Eusko Jaurlaritzaren aurkako auzi-prozesuaren ebazpena martxoan aterako zelakoan eta Jaurlaritzarekin negoziatzen ari zelako sortutako arazoa konponduko zuen finantziazioa. STEE-EILASek behin eta berriz adierazi du planteamendu hori irrealia zela eta, batetik, Epaitegi Nagusiak auzi-prozesua atzera botatzeak eta, bestetik, PNV-ren Jaurlaritzak aurrekontuetan hezkuntzarako %7ko murrizketa ezartzeak arrazoia ematen digute.

Kristau Eskolak luzatzen ari da gatazka zentzurik gabeko helegiteak eta auzi-prozesuak sartzen. Besteak beste, irakasle eta haur hezkuntzako langileentzako murrizketen kasuan "incidente de nulidad" delako hori- epaiaren egikaritzea ez du atzeratzen eta AICE-ren arabera aurrera egiteko aukera oso txikia du- ipini du. Irakasle ez diren %95ko ekiparazioari dagokionez, hanka eta bururik ez duen " recurso de aclaración" delakoa sartu du, argibide guztiak EAEko Auzitegi Nagusian egindako epaiketan eman baitziren eta argitzeko geratu den konturik badago Lan hitzarmena interpretatzeko batzordea mistoak argi dezakeelako. Asmoa argia da, prozedura ahali eta gehien luzatzea; besterik ez.

STEE-EILAS beste behin eskatzen dio Kristau Eskolari agortutako bide hau baztertzea eta ,erantzukizunez, 2008-2009ko lan hitzarmenean jasotako akordio guztiak betetzea. Jakin badakigu Kristau eskolako zenbait ikastetxe prest dagoela urrats hau berehala emateko baina ez dutela ematen euren patronalak horrela eskatuta. Berehala nomimak eguneratzea, 2012ko abendu arteko, gutxienez, atzerapenak kitatzea eta irakasleen %95eko ekiparazioa betetzea ezinbestekoa dela uste dugu.

Martxoaren 7an negoziazio-mahaia berriro biltzen da. Kristau eskola beste abagune berria dauka erantzukizunez jokatzeko. Lan hitzarmena betetzeko urratsak ematen baditu eta hartutako konpromisoak betetzeko gauza bada, STEE-EILAS prest dago 2013ko lan hitzarmen berria negoziatzen hasteko.

STEE-EILASek urteak daramatza Madril, Iruñea eta Gasteizeko gobernuek etengabe ezartzen ari diren murrizketak salatzen. Mota askotariko mobilizazioak bultzatu ditugu, Kristau Eskolak behartuta auzitegietara jo dugu 2008-09ko hitzarmenean jasotako eskubideak defendatzearen. Eta bide horretatik jarraituko dugu; gurea defendatzen, irakaskuntza pribatuko langileen eskubideak defendatzen, negoziazioan, kaleetan eta, beharrezko izanez gero, auzitegietan ere.

Hezkuntzan STEE-EILAS

ARABA: Eulogio Serdan, 5	01012 Gasteiz	☎ 945 14 11 04	☎ 945 14 43 02	araba@stee-eilas.org
BIZKAIA: Nikolas Alkorta, 3 (Zabalburu)	48003 Bilbao	☎ 944 10 02 98	☎ 944 10 13 60	bizkaia@stee-eilas.org
GIPUZKOA: Baso-txiki, 30-34 (atzealdea)	20015 Donostia	☎ 943 46 60 00	☎ 943 45 36 27	gipuzkoa@stee-eilas.org
NAFARROA: Deskalzos, 72 (Ionja)	31001 Iruñea	948212355	948229790	nafarroa@stee-eilas.org